

## KONTROL MOZIOA

### Udal eta foru liburutegien balizko bateratzeaz informatzeko egokitasuna dela-eta

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko maiatzaren 15ean Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### JUSTIFIKAZIOA

Gaur urtebete, alegia, 2016ko maiatzaren 19an kultura arloko udal eta foru arduradun politikoei iragarri zuten bi liburutegiak batzeko asmoa: hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokion Koldo Mitxelena kulturaguneko liburutegia eta udal sarearen baitan dagoen Liburutegi Nagusia.

Udal zinegotzi ordezkariak azalpenak eman zituen ondoren, Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoan, azalduz gaia oraindik aztergai zegoela, aspektu asko landu behar zirela, eta urte bukaerarako aditu baten txostenaren berri izango genuela. Abendua joan zen eta informazioa ailegatzeko ez zenez, aurtengo urtarrilean galdetu egin genuen ea adituek eginiko txostena, udal eta foru liburutegien balizko bateratzeari dagokionez, egin ote zegoen, eta ezetz erantzun zigun zinegotzi ordezkariak; horrekin batera, azaldu zuen informazioa Donostia Kulturako Kontseilura eramango zuela.

Geroztik Donostia Kultura EEPko Administrazio Kontseiluak bilkurak egin direla baina gaiaren inguruan informaziorik zabaldu ez dela ikusita, mozio honi bide eman dion interpelazioa egin genuen. Izan ere, hainbat informazio iturriren arabera mezu anitzak zabaldu dira Foru Aldundiko langileen kaleratzeak izango direla, bi erakundeen arteko egitasmoak, lehenengo, ez zuela aurrera egin behar (*“momentuz batze-prozesuak ez du aurrera egingo”*) eta ondoren, protokolo bat sinatzeko asmoarekin lanean ari direla. Maiatzaren 15eko batzordean gauzak argitzeko urrun gaudela zioen zinegotzi ordezkariak.

Bi egun geroago, Donostia Kultura EEPko Administrazio Kontseiluaren azken bilkuran, zinegotzi ordezkariak azalpen ugari eman zituen “Galde-eskeak” puntuaren barruan. Gaiak duen dimentsioa kontuan izanda, guztiz egokia da Kontseiluaren baitan sakon, luze eta behar beste aritzea, eta galdezka ibiltzea ez litzateke beharrezkoa izan beharko, baizik eta gaiaren inguruko aurrerapenak puntualki jaso beharko liratekeela. Baina, halaber, etorkizunean izan ditzakeen ondorioak kontuan hartuta, gaiari buruz publikoki aritzea ariketa sano, probetxuzkoa eta aberasgarria izan daitekeelakoan gaude, zerbitzuan aurreikusten diren aldaketak, onerako zein txarrerako, herritarrengan zuzenean eragingo

dutelako; ez dira soilik maila teknikoan kokatu behar diren arazoak. Funtzak batzea, erosketak elkarrekin egitea, adibidez, hobekuntza teknikoak izan daitezkeelako, baina Alderdi Ederreko liburutegia itxi eta zerbitzuak (egunkarien irakurketa, liburuen mailegua,...) Koldo Mitxelena kultur-guneraino eramatea erabiltzaile askorentzat aldagata ez positiboa izan daitekeelako, Parte Zaharrean eta Erdialdean Liburutegi Nagusiak betetzen duen funtzioa dela-medio. Etorkizunean batze horri buruzko erabaki egokia hartze aldera, guztiok ongi informatuak egotea eta herritarren iritzia ere ezagutua izatea egokia da. Poliki landu behar diren aspektuak dira hauek, eta helburuotan sakondu beharra ikusten dugu. Sen onekoa baita, ongi erabakitzeko, iritzia egokia emateko, ongi informatuta egon behar dela.

Horiek horrela, haxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1.- Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Liburutegi Nagusiko zerbitzu, funtsa, funtzionamendu, kokapen edo/eta bestelakoei dagozkien egitasmo berrien inguruko informazio egokiak puntualki zabal ditzan herritarren artean eta udal ordezkarien artean - Donostia Kulturako EEPko kontseilukideak izanik, zein udalbatzakideak izanik-.

2.- Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Liburutegi Nagusiko zerbitzu, funtsa, funtzionamendu, kokapen edo/eta bestelakoen etorkizunaz erabakirik hartu aurretik, kontuan izan ditzan herritarren, langileen zein udal taldeen iritzia, eta haiek entzuteko bideak ziurta ditzan.

3.- Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Liburutegi Nagusiko zerbitzu, funtsa, funtzionamendu, kokapen edo/eta bestelakoen etorkizunaz erabaki egokiak hartze aldera, lantzen diren txosten eta informazio teknikoan berri puntualki eta dagozkion organoen bidez eman dezan.

Donostian, 2017ko maiatzaren 19an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga  
EH Bildu udal taldeko zinegotzia